

1. GAIA: BASERRIAN ELIKAGAIAK EKOIZTEA. INGURUMEN-INPAKTUAK.

ARLOA: Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza

MAILA: Lehen Hezkuntzako 3. zikloa

TENPORALIZAZIOA: 8-10 saio inguru

HELBURU OROKORRAK

- Elikagai batek egiten duen bidaia azaltzea, nekazariak uzta biltzen duenetik mahaira iristen den arte.
- Antzerkiaren bitartez, elikagaien ekoizpenak landan duen eragina deskribatzea eta nekazaritzako eta abeltzaintzako sistema-motak bereiztea.
- Berdinen arteko komunikazioa bultzatzea.
- Aurkezpenak egiteko gaitasunak garatzea.
- Taldeko lana sustatzea eta jorratzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Unitateetan egin beharko duten lana aurkeztea.
- Kontsumitzen dituzten elikagaiak non eta nola ekoizten diren ezagutzea.
- Berotegi-efektuan nekazaritzak eta abeltzaintzak izan dezaketen eragina identifikatzea.
- Animalia hausnarkariak zer diren jakitea eta haiek gasen emisioekin duten lotura zehaztea.
- Elikagai bakoitza ekoizteko behar den ur-kantitatea zehaztea.
- Nekazaritzak eta abeltzaintzak uraren kutsaduran zer eragin duten ezagutzea.
- Biodibertsitatearen galeran eragiten duten arrazoiak identifikatzen ikastea.
- Lurzoruaren higadura zer den ulertzea, inguruan dituzten adibideen bitartez.
- Ekoizpen-sistemen ezaugarri batzuk identifikatzea.
- Elikagaien ekoizpena jasangarria izateko jarraitu beharreko gomendioak egitea.
- Landutako kontzeptuak barneratzea.
- Sormena lantzea.
- Hizkuntza lantzea.
- Taldeko lana.
- Unitatean egin duten lanaz hausnartzea bakarka eta taldeka.

JARDUEREN SEKUENTZIA

HASIERA-FASEA

Ikasleek proposatu den gaiari buruz zer dakiten azalduko dute, eta, ondoren, horri buruzko sentsibilizazioa egingo da.

1. JARDUERA: jarduera orokorra / unitatearen hasiera

2. JARDUERA: elikagaien jatorria

GARAPEN-FASEA

Fase honetan, sentsibilizazioan aurkeztu dena landuko dute, eta helburua antzezlan bat sortzea izango da. Horretarako, hainbat eduki landuko dituzte, gaiari buruz informatuko dira, eta zer adierazi nahi duten planteatu beharko dute.

3. JARDUERA: berotegi-efektuko gasak

4. JARDUERA: animalia hausnarkariak

5. JARDUERA: uraren erabilera

6. JARDUERA: biodibertsitatea

7. JARDUERA: lurzorua higidura

8. JARDUERA: ekoizpen-sistemak

9. JARDUERA: nola egin aurrera ekoizpen jasangarriantze

10. JARDUERA: kontzeptuak definitzen

AMAIERA-FASEA

Sortu beharko duten antzezlanaren lehenengo ekitaldia egingo dute, eta materialak prestatuko dituzte.

11. JARDUERA: fitxa

12. JARDUERA: ebaluazioa

A) HASIERA-FASEA

1. JARDUERA: Jarduera orokorra/ unitateari hasiera

Materiala	Lan-koaderno
Helburuak	Unitateetan egin beharko duten lana aurkeztea.

Jardueraren garapena:

Jarduera hauen bitartez, elikagaien ekoizpenari lotutako gaiak landuko dituzte. Baina, hasierako zati honetan, “zer” egingo duten baino gehiago, “nola” egingo duten landuko dute. Unitate guztiak antzezle-roletik aztertuko dituztela aipatuko du irakasleak, eta gai bakoitzean antzerkigintzari lotutako ariketak eta jarduerak ere egin beharko dituztela.

Hasteko, irakasleak antzerkigintzari lotutako galdera hauek egingo ditu:

- Zer da antzezlan bat?
- Ikusi al duzue antzezlanik noizbait? Zein? Nolakoa zen?
- Eta zuek antzezlanik egin al duzue noizbait? (Eskolan, familiarekin, lagunekin udalekuean...) Zer antzezten duzue normalean? Nola prestatzen dituzue antzezlanak? Mozorrotzen zarete?

Galdera horiek erantzunez, seguruenik ikasleak konturatuko dira guztiek izan dutela esperientziaren bat antzerkiarekin. Beraz, gertuko jarduera gisa aurkeztu daiteke, eta motibagarria egin.

Sarrera honekin amaitzeko, irakasleak elikaduraren inguruko antzezlan bat egin beharko dutela gogoraraziko die ikasleei. Gainera, antzerki bat antolatzeke eman beharreko pausoak azalduko dira: castinga, gidoia sortzea, atrezzoak prestatzea (arropa, eszenatokia), entseguak, entsegu orokorra, etab.

2. JARDUERA. Elikagaien jatorria

Materiala	Lan-koadernoak
Helburuak	Kontsumitzen dituzten elikagaiak non eta nola ekoizten diren ezagutzea.

Jardueraren garapena:

Jarduera honetan, elikagaiak ekoiztean sortzen diren ingurumen-inpaktuetan pentsatzen hasi beharko dute. Jadanik badakite elikadurari buruzko antzezlan bat osatu beharko dutela, eta, horretarako, hainbat kontzeptu landu beharko dituzte.

Jarduera honen bidez, ikasleak elikagaien ekoizpenean murgiltzen hasiko dira. Hori bideratzeko, kontsumitu ohi dituzten elikagaietan oinarrituta egingo dute lan, betiere beren aurrezagutzetatik hasita.

Lehenik eta behin, bakarka jarriko dira, eta galdera batzuen inguruan hausnartu beharko dute. Horrek elikagaien ekoizpenaz pentsatzen hasteko balio izango die, kontsumitu ohi dituzten elikagaiak oinarri hartuta.

Non ekoizten dira jaten dituzten elikagaiak? Nola ekoizten dira? Naturako zein baliabide behar dira haien ekoizteko? Mota horretako galderak erantzun beharko dituzte. Horretarako, lan-koadernoan aurkituko dituzten galderak erantzuten saiatuko dira. Ez du axola inolako jakintzarik ez edukitzea, ondoren taldeka elkartuko baitira. Asmoa da ikasleak pentsatzen jartzea eta, ondoren, taldekideekin batera, erantzunak osatzen ahalegintzea. Laguntza modura, webgunean, jardueraren orrialdean, irudi batzuk aurkituko dituzte, elikagaien jatorriarekin zerikusia dutenak.

Denbora-tarte bat utzi ondoren (5-10 minutu inguru), hirunaka taldetan elkartuko dira, eta erantzunak partekatuko dituzte, denek euren ekarpena egin arte. Helburua lan-koadernoko dokumentua denok elkarrekin osatzea izango da.

Bukatzeko, gelakide guztien artean egindako hausnarketak partekatuko dira, irakaslearen laguntzaz, elikagaien ekoizpenak izan ditzakeen inpaktuen inguruan pentsa dezaten.

Ariketa hau aurretiko ebaluazioa izango da. Hau da, ezer ikusi baino lehen dituzten jakintzak neurtzeko balioko du. Ondoren, unitate didaktikoaren amaieran, ebaluazio bat egingo dute, eta aurrerapenik egon den ikusteko aukera egongo da.

B) GARAPEN-FASEA

3. JARDUERA: berotegi-efektuko gasak

Materiala	Lan-koadernoak eta Internetarako sarbidea
Helburuak	Berotegi-efektuan nekazaritza eta abeltzaintzak izan dezakeen eragina identifikatzea

Jardueraren garapena:

Aurreko jardueraren bitartez, elikagaien ekoizpenean murgiltzen hasi dira ikasleak, eta hari buruz dituzten aurrezagutzak ikusi dituzte. Orain, berriro ere, gogoraziko zaie unitate honen azken asmoa zein den: antzezlan bat sortzea. Antzezlan horretan, unitate didaktikoan zehar ikasitako kontzeptuak sartu behar dituzte.

Ikasleei esango zaie informazioa biltzea dela antzezlanaren edukia sortu ahal izateko egin behar duten lehenengo lana. Izan ere, horrelako lan bat egiteko lehen urratsa, beti, informazioa bilatzea eta ideia sortzea da. Garapen-fase honetan, jarduera honetatik hasita, horixe egingo dute: berotegi-efektuko gasen inguruko informazioa bilduko eta antolatuko dute. Kasu honetan, nekazaritzan eta abeltzaintzan sortutako emisioak hartuko dituzte aintzat.

Ikasleei askatasuna emango zaie informazioa nahi duten lekuan bilatzeko, baina beti gogoraziko zaie orrialde seguruetan bilatzearen garrantzia. Adibide modura, hona hemen orrialde ofizialetatik eskuratutako esteka batzuk:

- <https://info.ikasgune.com/eu/berotegi-efektua/>
- <https://zientzia.eus/artikuluak/berotegi-efektua-zer-da/>

Ikasleek aukera izango dute aurkitzen duten informazio guztia jardueraren lan-koadernoan ipintzeko. Lagungarri modura, honako galdera hauei erantzuten dien informazioa bilatu dezakete:

- Zer da berotegi-efektua?
- Zerk eragiten du?
- Zertarako balio du?
- Zer arazo dago gaur egun?
- Nola eragin dezake berotegi-efektuko gasen isurketak nekazaritzatik eta abeltzaintzatik datozen elikagaien ekoizpenean?

Ikasleak hainbat taldetan banatu daitezke berotegi-efektuari buruzko informazioa bilatzeko. Talde txikietan lan egingo badute ere, gerora beste taldeekin informazio hori partekatuko dute; horrela, denen artean erantzunak alderatu ahal izango dituzte.

Sarean bilaketak egitean, garrantzitsua da bakoitzak bilatu nahi duena aurkitu ahal izatea. Hori errazteko, bilatzaileek bilaketa aurreratua erabiltzen dute. Funtzio horrek aukera ematen du bilaketa-emaitzak murrizteko eta bilatzen dugun hori zehazki aurkitzeko. Horretarako, bilatzaile batzuetan (Google, DuckDuckGo, Bing) funtzio hori nola erabili azaltzen duen baliabide bat aurkituko dute jarduera honen orrialdean.

Bestetik, ariketa amaitzeko, webgunean bideo bat aurkituko dute. Horrela, konplexuagoa den gai hau hobeto ulertuko dute ikasleek.

4. JARDUERA: animalia hausnarkariak

Materiala	Lan-koadernoak eta Internetarako sarbidea
Helburuak	• Animalia hausnarkariak zer diren jakitea eta hauek gasen emisioekin duten lotura zein den zehaztea.

Jardueraren garapena:

Aurreko jardueran, abeltzaintzan eta nekazaritzan isurtzen diren hainbat gas landu dituzte, gaingiroki. Ariketa honetan, animalia hausnarkarien gaian sakonduko dute. Lehenik, animalia hausnarkari bat zer den ikasi beharko dute. Horretarako, irakasleak

ikasgela osoaren aurrean galdetuko du ea norbaitek horren inguruko zerbait ba ote dakien. Solasaldi bat eratuko da ikasleek dakitenaren inguruan, eta, webgunean topatuko duten irudi baten bitartez, hausnarkarien prozesua azalduko zaie.

Adibide gisa, aurreko argazkian erakusten den informazioa eman dakieke ikasleei, webgunean aurkituko duten ilustrazioaz baliatuz.

Hausnarkariak zer diren argi daukatenean, lan-koadernoan ariketa bat egin beharko dute, bakarka. Hasteko, hainbat animalia irudiak beren izenekin lotu beharko dituzte, eta, hori egin eta gero, hausnarkariak diren edo ez adierazi beharko dute. Ondoren, talde handian, ariketa zuzenduko dute.

Hausnarkarien gaia amaitzeko, bideo bat ikusiko dute, eta animalia hausnarkarien eta gasen isurketaren arteko lotura zein den pentsatuko dute. Bideoa webgunean aurkituko dute, baina esteka honako hau da: [Hausnarkarien rola klima aldaketan](#)

5. JARDUERA. Uraren erabilera

Materiala	Lan-koaderno eta EITB.eus-en baliabidea
Helburuak	• Elikagai bakoitza ekoizteko behar den uraren erabilera zehaztea. • Nekazaritza eta abeltzaintzak uraren kutsaduran izan dezakeen eragina ezagutzea.

Jardueraren garapena:

Hainbat ikerketaren arabera, gehien kutsatzen duten elikagaiak karbono dioxido gehien isurtzen dutenak dira, baita ekoizteko ur gehien behar dutenak ere. Kasu honetan, uraren erabilera zentratuko gara.

Lehenik, ezaugarri eta jatorri desberdinetako 7 elikagai zerrendatuko ditu ikasle-talde bakoitzak. Ondoren, behean eskuragarri dagoen baliabidea erabiliz, aukeratutako elikagai bakoitzak behar duen ur-kantitateari erreparatuko diote.

<https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/oso/9009851/janariak-ere-kutsatzen-du/>

Emandako baliabidean beste datu batzuk ageri badira ere, kasu honetan datu bakarra eskatuko zaie, beharrezko informazioa hautatzen ere ikas dezaten. 1etik 15erako puntuazioa egokituko zaio elikagai bakoitzari, eta eskuratutako datuekin grafiko bat egin beharko dute.

Elikagaiak ekoizteko beharrezkoa den ur-kantitatearen inguruan hausnartzeaz gain, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren inguruko hainbat praktikan kutsatutako uraren inguruan ere hausnartzeko, bideo bat aurkituko dute webgunean.

6. JARDUERA: biodibertsitatearen galeran eragiten duten faktoreak

Materiala	Lan-koaderno
Helburuak	• Biodibertsitatearen galeran eragin dezaketen arrazoiak identifikatzen ikastea.

Jardueraren garapena:

Biodibertsitatea edo bioaniztasuna gure planetako izaki bizidun guztien multzoak osatzen du: landareek, animaliek, onddoek eta mikroorganismoek. Biodibertsitateak berezko garrantzia dauka, eta funtsezkoa da ekosistema osasuntsua eta produktiboa izateko. Elikaduraren gaiari dagokionez, elikagaiak behar bezala sortzeko, ezinbestekoa da biodibertsitatea mantentzea. Hala ere, biodibertsitatea arriskuan jartzen duten hainbat faktore daude, eta haietako asko gizakiok elikagaien ekoizpenean eragindakoak dira. Horri buruz ikasteko, bideo bat aurkituko duzue webgunean.

Ariketa hau bakarka egingo dute (5-10 minutu), eta, ondoren, talde osoan komentatuko dute. Biodibertsitatean eragiten duten arrazoien berri izango dute, eta arrazoi horiek irudi batekin lotu beharko dituzte.

7 JARDUERA: lurzorua ren higadura

Materiala	Internerako sarbidea, argazkiak ateratzeko aparaturen bat (kamera, mugikorra...), lan-koaderno
Helburuak	Lurzorua ren higadura zer den ulertzea, inguruan dituzten adibideen bitartez.

Jardueraren garapena:

Lurzorua ren higadura handitzeak lurra ren produkzio-ahalmena murriztea eragiten du. Bertan bizi diren animalien eta mikroorganismoen habitat naturalak suntsitzea eragin dezake horrek, ekosistemen oreka eraginez. Elikagaiak ekoizteko jardueran, hainbat prozesu eragin dezakete higadura horretan: nekazaritzan lurzorua ren erabilera desegokia egiteak, gehiegizko artzaintzak, gehiegizko laborantzak, baldintza klimatikoek, lurzorua ren morfologiak, landare-geruzaren degradazioak...

Jarduera honetan, ikasleek kalera irten beharko dute, lurzorua ren higadura identifikatu beharko dute, eta horren inguruko fitxa bat bete beharko dute. Agian, nahikoa izan daiteke jolastokira ateratzea; bestela, ariketa hau ikastetxetik etxerako bidean egin dezakete, edota asteburuan egindako txango batean. Argazkia atera beharko dute, kokalekua zehaztu, eta higadura horren arrazoiak zein izan den pentsatu beharko dute.

Horretarako, beharrezkoa izango da, aurrez, ikasgelan bertan lurzorua ren higadurari buruzko informazioa bilatzea. Hori lortzeko, lan-koadernoan ondorengo galdera hauek erantzun beharko dituzte: Zer da lurzorua ren higadura? Nolakoa da? (Argazkiak begiratu) Zer arrazoiak eragiten du? Zer egin daiteke lurra zaintzeko edo mantentzeko?

8. JARDUERA: ekoizpen-sistemak

Materiala	Lan-koaderno, Interneterako sarbidea, arbela, margoak
Helburuak	Ekoizpen-sistema desberdinen ezaugarri batzuk identifikatzea.

Jardueraren garapena:

Jarduera honen bitartez, ikasleen sormena landuko da. Horretarako, ekoizpen-sistema nagusien marrazkiak egin beharko dituzte. Ezerezetik sortu beharrean, paisaia baten

oinarria emango zaie, eta, bertan, aukeratu duten nekazaritza- edota abeltzaintza-motaren inguruko marrazkia egin beharko dute. Aipatzekoa da interesgarria dela elikadurarekin zerikusia duten marrazkiekin trebatzen hastea, antzezlanaren prestatzeko apaingarriak ere landu beharko baitituzte gero.

Horretarako, aurrez sistema-mota desberdinen inguruan hausnartu beharko dute. Hasieran, lan-koadernoan, ekoizpen-sistema batzuen izenak izango dituzte, eta ikasleen lana izango da sistema horietako bakoitzari dagozkion ezaugarriak idaztea. Talde txikitan jarrita, Interneten informazioa bilatu beharko dute, argazkietatik edo testuetatik abiatuta (5-10 minutu). Segidan, talde handian ariketa bera egingo dute, arbelean ekoizpen-sistema bakoitzari dagozkion ezaugarriak adieraziz.

Amaitzeko, ikasle bakoitzak ekoizpen-sistema horietako bat aukeratu beharko du, eta, hari dagozkion ezaugarrietan oinarriturik, marrazkia osatu beharko du.

9. JARDUERA: nola egin aurrera ekoizpen jasangarritantz

Materiala	Aurretik egindako fitxak, lan-koadernoak
Helburuak	Elikagaien ekoizpena jasangarria izateko jarraitu beharreko gomendioak egitea

Jardueraren garapena:

Ariketa honen bitartez, orain arte egindako jardueraz baliatuko dira ikasleak. Aurreko unitatean ikasi dute zein diren elikagaiak ekoiztearen alderdi positibo eta negatiboak, eta ideia orokor batzuk barneratzeko balio izan die.

9. jarduera honen bitartez, ekoizpen jasangarria bultzatzeko jarraitu beharreko gomendioak egin beharko dituzte, batez ere ekoizleei begira. Unitate osoan ikasitakoarekin, ikasle-hirukote bakoitzak bost gomendio egin beharko ditu. Horretarako, unitate osoan landutako gaiak eta ariketak errepasatu beharko dituzte eta, haietan oinarriturik, proposamenak egin.

Talde bakoitzak egindako proposamenak beste taldekideen aurrean aurkeztuko dira; horrela, gomendio desberdinak entzun eta gelakideen proposamenetatik ere ikasi ahal izango dute.

10. JARDUERA: kontzeptuak definitzen

Materiala	Lan-koadernoak, <i>post-it</i> ak, arbela
Helburuak	Landutako kontzeptuak barneratzea

Jardueraren garapena:

Garapen-fase hau amaitzen hasteko, unitate osoan landutako kontzeptuak definitzeari ekingo zaio, ikasle guztien artean glosario bat sortuz. Era honetan, ikasleek, antzezlanaren prestatzeko, glosarioa aurrean izan dezakete, ideiak antolatu ahal izateko.

Lehenik, gai honetan zehar landu dituzten kontzeptu edo ideietatik zein nabarmenduko luketen galdetuko zaie ikasleei. Ikasle bakoitzak adierazgarria, interesgarria edo gaia ulertzeko garrantzitsua iruditu zaion kontzeptu bat idatziko du *post-it* batean. *Post-it*

horiek arbelean itsatsiko dituzte txandaka, nolabaiteko hurrenkera bat mantenduz: errepikatzen direnak elkarren ondoan jarritz, ideia berari erreferentzia egiten diotenak taldekatuz, eta abar. Ikasle bakoitzak kontzeptu hori zergatik aukeratu duen azalduko du, ahal den neurrian ideia horren inguruan zer ikasi duen adieraziz eta glosarioan zergatik gehitu beharko luketen arrazoituz.

Ikasleen proposamen guztiak arbelean ezarri eta gero, agertu ez diren beste kontzeptu garrantzitsu batzuk ere proposatuko ditu irakasleak. Horrela, guztien artean lantzeko kontzeptuak aukeratuko dituzte.

Proposamen modura, kontzeptu hauek ager daitezke:

- Ingurumena
- Berotegi-efektua
- Isurketak
- Hausnarkariak
- Deforestazioa
- Uraren erabilera / beharra nekazaritzan eta abeltzaintzan
- Kutsadura nekazaritza eta abeltzaintzan
- Bioaniztasuna
- Monolaborantza
- Habitat naturalen suntsipena eta paisaiaren zatiketa
- Lurzoruaren higadura
- Sistema estentsiboko ekoizpena
- Sistema intentsiboko ekoizpena
- Ekoizpen ekologikoa
- Agroekologia
- Abeltzaintza estentsiboa
- Nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueren industrializazioa
- Desoreka sozioekonomikoa
- Jasangarritasuna

Ariketa hau amaitzeko, berriz ere hirunaka bildu, eta ikasle-talde bakoitzak kontzeptu batzuk hartuko ditu, haiek definitzeko asmoz. Jarraian, ikasle-talde bakoitzak osatutako definizioak beste ikasleekin partekatuko ditu, denen artean glosario bat osatuz.

C) AMAIERA-FASEA: GOAZEN SORTZERA!

11. JARDUERA: fitxa eta lan banaketa

Materiala	Fitxa
Helburuak	• Sormena lantzea. • Hizkuntza lantzea. • Landutako kontzeptuak barneratzea. • Taldeko lana.

Jardueraren garapena:

Amaiera-fase honetan egin beharreko lehenengo gauza antzerki-taldeak bereiztea izango da. Horretarako, lau taldeak osatuko dituzte, eta antzeztu nahiko duten gaiaren inguruan pentsatzen jarriko dira.

Unitateek aurrera egiten duten heinean gauzak hobeto definituko dituzte, baina, hasieran, hainbat pertsonaia eskainiko zaizkie, ikasle bakoitzak haietako bat antzeztu dezan. Adibide modura, aukera hauek proposatzen dira, nahiz eta ikasleek edo irakasleek beste rolen bat proposa dezaketen: Elorrion esne ekologikoa ekoizten duen ekoizlea, Malagako ahuakatea (intentsiboa), kinoa, Costa Ricako anana, palma-olioa, Nafarroan kaiolan hezi dituzten oiloak eta haien arrautzak, hiri-ortuan autokontsumorako tomateak (edo bestelako barazkiak) ekoizten dituen familiako kidea, Gernikako piperrak...

Ikasle bakoitzak rol bat hautatuko du, eta rol horren inguruko fitxa bat bete beharko du, unitate osoan zehar osatzeko.

12. JARDUERA: ebaluazioa

Materiala	Lan-koaderno
Helburuak	Unitatean zehar egin duten lanaz hausnartzea, bakarka zein taldeka.

Jardueraren garapena:

Sekuentzia honen amaieran, ikasleek beren autoebaluazioa egingo dute. Taula honetan azalduko dute nola aritu diren unitatean, beren jarduna erregulatu ahal izateko eta hobetzeko dituzten alderdiak identifikatzeko.

Autoebaluazioan, oinarrizko zehar-konpetentzien garapenean egindako aurrerapausoak baloratu beharko dituzte, eta baita arterako eta teknologiarako konpetentziei dagozkienak ere.

Lan-koadernoan agertzen den taula bete ondoren, talde txikitan partekatuko dituzte beren hausnarketak eta hobekuntza-proposamenak.

Azkenik, talde handian, lan-prozesu guztian ikasi dutenaz hitz egingo da, izan dituzten zailtasunak aipatuko dira, eta haiek hobetzeko proposamenak egingo dituzte, irakaslearen laguntzarekin.

Oinarrizko zehar-konpetentziak

Zer egin dut?	Nola aritu naiz?	Zer egin dezaket hobetzeko?
Komunikatzen ikasteko...		
Ahozko azalpenak eta idatzizko testuak era egokian eta zuzen sortzen ahalegindu naiz.		
Ikasten ikasteko...		
Antzezlanak egiten aritu naiz, emandako ereduak jarraituz.		

Elkarbizitzen ikasteko...		
Taldekideekin zereginak partekatu ditut, eta arduratsu jokatu dut nire betebeharrekin.		
Ekiten ikasteko...		
Egindako lanak berrikusteko eta hobetzeko zereginetan parte hartu dut.		
Izaten ikasteko...		
Nire ikuspuntuak eta sentimenduak taldekideekin partekatu ditut.		

Naturarako konpetentzia

Zer egin dut?	Nola aritu naiz?	Zer egin dezaket hobetzeko?
Ariketen bidez... Elikagaien ekoizpenak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuak landu ditut unitatean eskatutako moduan.		

Teknologiarako konpetentzia

Zer egin dut?	Nola aritu naiz?	Zer egin dezaket hobetzeko?
Baliabideak erabili... Produktu teknologikoak zentzuz erabili ditut, zertarako erabili nahi ditudan garbi utziz, bideoak edota audioak grabatzean nahiz edizio-aplikazioak erabiltzean.		